



# ARANTZAKO UDALA

**Arantzako Udaleko alkateak, 2023ko martxoaren 8an, osoko idatzirik dagoen honako Ebazpena onartu du:**

**20/2023 EBAZPENA, MARTXOAREN 8KOA, ARANTZAKO UDALEKO ALKATEARENA, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO PROZESU BEREZIAREN BARNEAN, ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKO ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, LANPOSTU HUTSAK MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA DELA ETA, EPAIMAHAIKO KIDE TITULARRAK ETA ORDEZKOAK IZENDATZEN DITUENA.**

Arantzako Udaleko alkatearen azaroaren 22ko 147/2022 Ebazpenaren bidez lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zen, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Merezimendu-lehiaketaren deialdia 2022ko azaroaren 28ko 237. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratu zen.

Horrela bada, eskabideak aurkezteko epea 2022ko abenduaren 19an bukatu zen.

Aipaturiko deialdiaren 5. oinarrian xedaturikoaren arabera, kalifikazio epaimahaia deialdia onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da.

Ikusirik Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedaturikoaren arabera.

## **EBATZI DUT:**

1) Aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 legean xedaturikoaren arabera, epaimahaiko kide titular eta ordezeko hauek izendatzea:

- Epaimahai burua: Dabid Iturria Almandoz (Arantzako Udaleko alkatea).  
*Ordezkoa: Leire Mitxelena Gamio (Arantzako Udaleko zinegotzia).*
- Mahaikidea: Jose Joaquin Urreta Arribillaga (Arantzako Udaleko administrari ofiziala).  
*Ordezkoa: Angel Urtxegi Telletxea (Arantzako Udaleko zerbitzu anitzetako arduraduna).*
- Mahaikide-idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte (Arantzako Udaleko idazkaria).  
*Ordezkoa: Bortzirietako udaletako bertze idazkarietako bat.*

2) Epaimahaia eratzeko ekitaldia 2023ko martxoaren 20an ezartzea, aldi baterako enplegua egonkortze eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean interesdunek aurkeztutako eskabideak eta dokumentazioa aztertzeko eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, prozedurarekin jarraitzeko.

3) Ebazpen hau epaimahaian egonen diren titularrei jakinaraztea, eratzeko ekitaldian parte hartzeko deia eginez.



# ARANTZAKO UDALA

4) Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea, ebazpenaren aurka, hautara, aurkeztu daitezkeen helegiteen informazioarekin batera.

---

**Ebazpen honen aurka, hautara, helegite hauetako bat aurkezten ahal da:**

- a) Berraztertze helegitea, egintza gauzatu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-helegitea, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organo eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoren xedeko egintza edo erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c) Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsoren xedeko egintza edo erabakia argitaratu denetik hasita.

Arantzan, 2023ko martxoaren 9an.

**ALKATEA,**

**IDAZKARIA,**

Dabid Iturria Almandoz

Nagore Madariaga Iriarte